



Lezoko Unibertsitateko Udala

ZER BERRI

LEZON?

LEZOKO UDAL ALDIZKARIA REVISTA MUNICIPAL DE LEZO

PATRI URKIZUK LIBURU BERRIA AURKEZTU DU LEZON



NUEVO LIBRO DE PATRI URKIZU

16'

URTARRILA 2024 ENERO

AURTENGO AURREKONTUAK EZAGUTZEN DITUZU?
¿CONOCES LOS PRESUPUESTOS PARA ESTE AÑO?

4

LEZOKO PARKE-SAREA ERABERRITUKO DU UDALAK
EL AYUNTAMIENTO RENOVARÁ LA RED DE PARQUES DE LEZO

6



DESCARGATU ETA IRAKURRI ALDIZKARIA ZURE MUGIKORREAN

DESCARGA Y LEE LA REVISTA EN TU MÓVIL

@lezo_udala

@LezoUdala

@LezokoUdala

Lezoko Udala
Gurutze Santuaren Plaza, 1
20100 Lezo
943 524 650
www.lezo.eus



Ur goiena, ur barrena, urte berri ona

Mikel Arruti Salaberria
Lezoko Alkatea

Ura zerutik dator euriaren bidez (ur goiena) eta lur barruan gordetzen da, iturri, erreka eta ibaien bidez azaleratzen den arte (ur barrena). Urteko lehen ura sendatzailea eta berritzailea zela sinisten zuten garai batean. Ur berri horrek, gaitzak sendatzeko eta urte berriko txar guztia uxatzeko ahalmena zuela. Horrela, herriko neska-mutilek herrietako iturrietatik ura pitxerretan jasotzen zuten gainerako herritarrei ur berria etxez-etxe banatzeko. Errito horrekin hasten zuten urte berria gure arbasoek. Eta horrela hasi nahi dugu 2024. urtea: ur berria lezoar guztiekin banatuz.

Eskuetan duzuen udal aldizkaria ere, aldizkari berria da, nolabait. 2024. urteko lehenengoa izateaz gain, gobernu talde berri honen ideia, proposamen eta egiteko berrien lehen zantzuak ikusteko aukera ematen baitu. Joango gara, aurrerantzean ere, gure herriak dituen erronkei ahalik eta ongien erantzun ahal izateko beharrezkoak diren aldaketak elkarrekin eta soseguz burutzen.

Besterik gabe, edan dugun ur berriak lagun diezagula 2024. urtea maitasunez eta askatasunez bizitzen.

El agua viene del cielo a través de la lluvia (ur goiena) y se almacena dentro de la tierra hasta que aflora a través de fuentes, arroyos y ríos (ur barrena). Hubo una época en la que creían que la primera agua del año era curativa e innovadora. Que esa agua nueva tenía el poder de curar los males y ahuyentar todo lo malo del año nuevo. Por ello, los y las jóvenes del pueblo recogían el agua en jarras de las fuentes para repartir casa a casa el agua nueva al resto de la población. Con este rito iniciaban el nuevo año nuestros antepasados. Y así queremos empezar el año 2024: repartiendo el agua nueva con todos y todas las lezoarras.

La revista municipal que tenéis en vuestras manos es, de alguna manera, una revista nueva. Además de ser la primera del año 2024, permite ver los primeros indicios,

Anfibioentzako urmaela eta tximeletentzako oasia sortu dute Altamiran

Crean una charca para anfibios y un oasis para mariposas en Altamira



Lezoko institutuak antolatutako auzolanean parte hartu du Udalak. 90 pertsona inguru bertaratu ziren Altamira parkean urmael bat eta tximeletentzako oasi bat egitea. Kanpo espazioa eraldatzeko Altabira izeneko prozesu parte-hartzailearen baitan dagoen ekimena zen. Aranzadi Zientzia Elkarteko, Zerynthia elkarteko eta Neikerreko (nekazal ikerketa eta garapenerako euskal erakundeko) adituen eskutik azalpenak jaso zituzten bertaratutakoek. Laguntza horrekin urmaela eta tximeleten oasia sortu zuten.

Gainera, taldeka, hainbat zeregin burutu zituzten, besteak beste: fruta-arbolen landaketak, baratzaren txukunketa eta loreontzien landaketak.

Egunari amaiera emateko auzolanean parte hartu zutenentzat bazkari antolatu zuten Altzate auzo elkartearen. Proiektuan parte hartu dute: Zubitxo guraso elkarte, Altzate auzo elkarte eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapen Jasangarritasun eta Ingurumen Saila.

El Ayuntamiento ha participado en una iniciativa comunitaria organizada por el instituto de Lezo. Cerca de 90 personas acudieron a la cita en el parque de Altamira para realizar una charca para anfibios y un oasis para mariposas.

Han participado en el proyecto la Sociedad de Ciencias Aranzadi, la Sociedad Zerynthia, el instituto Neiker, la asociación de padres Zubitxo, la asociación de vecinos de Altzate y el departamento de Desarrollo Económico y Medio Ambiente del Gobierno Vasco.



Argazkian: Azkoitia, Berrobi, Hondarribia, Lezo, Mendexa eta Zeanuriko alkateak eta zinegotziak, UEMAko lehendakari Martin Aramendirekin.

Lezo, UEMAko kide berria

Lezo, nuevo miembro de UEMA

Azkoitia, Berrobi, Hondarribia, Lezo, Mendexa eta Zeanuri UEMAko kide dira abendutik aurrera. Izan ere, batzar nagusia egin zuen UEMAk abendu amaieran Orion. Besteak beste, 2023an egindakoaren balantzea aztertu eta 2024rako egitasmo nagusiak onartu zituzten batzarkide diren alkateek eta zinegotziek. Mikel Arruti, Lezoko alkatea eta Iker Salaberria zinegotzia bertan izan ziren.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatera gehitzeko herri berriek egindako eskaerak ere onartu zituzten. Horrela, abendutik aurrera UEMAko kide dira beste sei herri ere. Zehazki, 107 udalek osatzen dute orain mankomunitatea, guztien artean 342.000 biztanleko lurgune euskalduna osatuz.

Mikel Arrutik, Lezoko alkatea, ondorengo adierazi zuen: "oso pozik gaude Lezo UEMAko kide berria izateagatik. Aurretik ditugun erronkei erantzuteko UEMAko ezagutzaz, jakintzaz eta bertako udalerrien sinergiaz baliatzeko aukera izango dugulako. Bestalde, euskaldunon aurkako oldarraldi betean, herriak elkarrekin eta modu bateratuan eragitea oso garrantzitsua dugula uste dugu. Ilusio eta gogo handia dugu, hasi dugun bide honetan, Lezotik gure aletxo gehitzeko".

Azkoitia, Berrobi, Hondarribia, Lezo, Mendexa y Zeanuri forman parte desde diciembre de UEMA. De hecho, UEMA celebró a finales de este mes su asamblea general en Orío. Estuvieron presentes el alcalde de Lezo, Mikel Arruti y el concejal Iker Salaberria.

Entre otras cuestiones, los alcaldes y concejales analizaron el balance de lo realizado en 2023 y aprobaron los principales planes para 2024. También aceptaron las solicitudes de nuevos municipios para adherirse a la Mancomunidad de Municipios Euskaldunes. Así, desde diciembre también forman parte de UEMA otras seis localidades. En concreto, 107 ayuntamientos forman ahora la mancomunidad, constituyendo entre todos ellos un lurgune euskaldun de 342.000 habitantes.

Mikel Arruti, alcalde de Lezo, afirmó que "estamos muy contentos de que Lezo sea nuevo miembro de UEMA. Tendremos la oportunidad de aprovechar el conocimiento, la experiencia y la sinergia de los municipios que forman parte de UEMA para responder a los retos que tenemos por delante. Por otro lado, en plena ofensiva contra los vascos y las vascas, creemos que es muy importante que los pueblos respondan de la misma manera y de forma conjunta. Tenemos mucha ilusión y muchas ganas de sumar nuestro granito de arena desde Lezo en este camino que hemos iniciado".



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA



2024RAKO ZERGAK ETA AURREKONTUAK

Aldaketa handienak edo ibilaldi luzeenak ere lehen urratsekin hasten dira. Udalean aldaketa horiek egiteko ezinbestekoa da Udal baliabideen erabilera egokia egitea. Zentzu horretan, Udalaren erabaki esanguratsuenetako batzuk zerga bilketari eta aurrekontuei lotutakoak dira.

Gizarte desberdintasunak gutxitzeko eta unibertsalak diren zerbitzu publikoak jende guztiari helarazteko tresna dira zergak. Horretarako, ordea, ezinbestekoa da; batetik, zerbitzu publiko egokiak eskaintzeko beharrezko baliabideak eskuratzea; eta bestetik, zergen progresibitatea bermatzea, gehien daukatenek gehiago eman dezaten.

Zergen progresibotasuna lantze bidean, errenta mailan oinarrituta, uraren, estolderiaren eta hondakin-bilketaren tasetan hobari sistema onartu du Lezoko Udalak.

Bestalde, azken urteotan zergak eta tasak izoztuta egon diren bitartean, prezioak igo diren neurrian, Udal zerbitzuak defizita pilatzen joan dira. Horren adibide garbiena hondakin bilketarena da, 2018an urteko 52 mila euroko defizit maila izatetik, 2023an 130 milatik goragoko defizit maila izatera igaro baita. Gauzak horrela, uztaileko KPlaren araberako %2,5 igoera ezarri da udal zerga eta tasa gehienetan. Hondakinen bilketan, berriz, egungo tasek zerbitzu horren kostuaren %60a soilik estaltzen dutenez, igoera %5ekoa izatea erabaki da.

Aurrekontuei dagokionez, hauek udal kudeaketaren baitan tresna garrantzitsuak dira, bertan aurreikusten baitira udalaren urteko jarduera nagusiak zeintzuk izango diren, eta baliabide publikoak zertan inbertituko diren.

Aurrekontuak osatzeko garaian ondorengo 4 ildo nagusi garatu nahi izan dira: herritarren eta herriaren zaintza, krisi klimatikoak, euskara eta parte hartzea edo gobernantza.

Herritarren zaintzari dagokionean, egoera zaurgarrian dauden pertsonengan jarri da arreta. Horrela, Renfeko estaziora bidean dagoen ADIFeko eraikinean bazterkeria egoeran daudenei eguneko zentroa eskaintzeko eraikina eraberritzeko inbertsioa egingo da. Aldiz, zerga ordenantzak eta hobari sistema hobetzen eta zabaltzen jarraitzeko, herritarren errentaren azterketa prozesua egitea aurreikusi da. Bestalde, haurren eta nerabeen ongizatea hobetzea begiz jota, Lezoko jolas-parkeen mantenua hobetzeko partida handitu eta parke-sarea eraberritzeko parte hartze prozesua abiatu da. Azkenik, feminismo saila dagokion garrantzia izaten hasi dadin, sail horretara bideratutako diru-partida %33a igo da.

Herriaren zaintzarekin lotuta, kontratua aspaldi amaitua eta eguneratu gabe zuten zerbitzuen antolaketa eta funtzionamendua berraztertu ondotik, kontratuak berrituko eta indartuko dira datorren urtean. Hala

5 UDALA



izan da kale garbiketaren zein lorezaintza zerbitzuen kasuan.

Bizi dugun krisi klimatikoari erantzutea gaur egun dugun erronka handienetakoa da. Horretarako, lehen urrats gisa, Lezoko Udaleko energia eta aldaketa klimatikoko plana egiteko urtebeterako teknikaria kontratatzea izango da.

Euskarari dagokionez, berriz, jaso berri ditugun kale erabileraren datuek kezkarako arrazoiak eskaintzen dituzte, eta beraz, ezin dugu itxaron horretan esku-hartzeko. Horretarako, herritarrekin eta eragileekin lankidetzan, euskararen plan-estrategikoa egitea, eta, bide horretan laguntzeko, Lezo UEMAko (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) kide egitea onartu da.

Azkenik, parte hartzeari lotuta, horretara bideratutako partida handitu da (5.000 eurotik 15.000 milara), eta udalaren berrantolaketa prozesua garatzea aurreikusita da, herritarren parte hartzea erraztu eta bideratzeko.

Dena den, Lezoko Udalaren aurrekontuak osatzerakoan, udal gobernuak muga handiak izan ditu. Izan ere, pertsonal gastuak eta oinarritzko zerbitzuen kontratuek, gastu finkoek, aurrekontu osoaren ia %80a hartzen baitute. Gauzak horrela, ekimen berriak abiatzeko edo inbertsioak egiteko aukerak dezente mugatuta daude, gaur gaurkoz. Horri arreta eskaini beharko zaio, beraz, hurrengo urteotan, egiturazko gastuak murriztuz, edota sarrera berriak eskuratuz.

>>>>>>>> PRESUPUESTOS 2024

Los cambios más grandes comienzan con los primeros pasos. Estos cambios en el Ayuntamiento exigen un uso adecuado de los recursos municipales.

Los impuestos son un instrumento para reducir las desigualdades sociales y hacer llegar a todo el mundo los servicios públicos que son universales. Pero para ello es imprescindible, por un lado, contar con los recursos necesarios para ofrecer unos servicios públicos adecuados y, por otro, garantizar la progresividad de los impuestos para que los que más tienen aporten más.

El Ayuntamiento de Lezo ha aprobado un sistema de bonificaciones en las tasas de agua, alcantarillado y recogida de residuos, basándose en el nivel de renta.

Por otra parte, mientras los impuestos y tasas han estado congeladas en los últimos años, a medida que los precios han subido, los servicios municipales han ido acumulando déficit. El ejemplo más claro es el de la recogida de residuos, que ha pasado de tener un nivel de déficit de 52.000 euros anuales en 2018 a superar los 130.000 en 2023. Así las cosas, se ha establecido un incremento del 2,5% en función del IPC de julio en la mayoría de los impuestos y tasas municipales.

A la hora de elaborar los presupuestos se han querido desarrollar 4 grandes líneas: el cuidado de la ciudadanía y del pueblo, la crisis climática, el euskera y la participación o la gobernanza.

En lo que respecta al cuidado de la ciudadanía, se ha centrado la atención en las personas en situación de vulnerabilidad.

Por otro lado, con el objetivo de mejorar el bienestar de los niños, niñas y adolescentes, se ha iniciado un proceso participativo para ampliar la partida destinada a mejorar el mantenimiento y la red parques de Lezo.

En cuanto a feminismo, la partida destinada a este departamento se ha incrementado en un 33% y responder a la crisis climática que vivimos es uno de los mayores retos que tenemos en la actualidad.

Se va a potenciar también el área de euskera debido a los preocupantes datos de uso del idioma en la calle que acabamos de recoger.

Por último, en relación con la participación, se ha incrementado la partida destinada a ello.

No obstante, a la hora de elaborar los presupuestos, el gobierno municipal ha tenido importantes limitaciones. De hecho, el gasto de personal y los contratos de servicios básicos suponen casi el 80% del presupuesto total. Por ello, las posibilidades de emprender nuevas iniciativas o realizar inversiones están bastante limitadas. A ello habrá que atender, por tanto, en los próximos años, bien reduciendo los gastos estructurales, bien recibiendo nuevos ingresos.

Lezoko Udalak parke-sarea eraberritzeko helburua du. Iker Salaberriaren hitzetan: "EH Bilduk herri programa lantzeko unean parkeena landu beharreko gai gisa jo zuen. Horretarako zenbait ekimen antolatu genituen gaiaren inguruan, eta orain gobernuan gaudela, konpromiso horri erantzuten hasi gara, parkeen egoera aztertuz".

"Hainbat gurasoren kezka ere jaso dugu parkeen inguruan, eta argi dugu, bai parkeen mantenuaren zein diseinuaren gainean gogoeta egiteko beharra dagoela. Guretzako garrantzitsua da Lezo haur eta gaztetxoentzat leku erosoak izatea, euren bizitza garatzeko espazio egokiak eskaintzea ezinbestekoa da, eta zentzu horretan, aisialdirako eta jolaserako espazioek garrantzi berezia dute".

Proiektuaren bidez gaur egun udalerrian dauden parkeen egoera aztertzeaz gain, beste zenbait espazio naturalen azterketa ere egingo da lanketa horretan.

Helburua lortzeko Hiritik At! Kooperatibarekin elkarlanean hasi da Udala. "Beraiengana jo genuen parke eta aisialdi eremuen azterketa parte hartzaile bat egin nahi genuela esanez. Proposamen bat egin ziguten, hirigintzan eta espazioen antolaketan adituak izanik, eta aurrera jo dugu".

Hiritik At kooperatibak herri hezitzaileak antolatu eta planifikatu egiten ditu. Horiek sortzeko beharra jarri du mahai gainean Ainhoa Retegik "azken finean haur batentzat egokia den herri bat planifikatzen badugu, hein handi batean guztientzat egokia den herria planifikatzen ari gara, atsegina eta erabilgarria den herri bat sortzen".



Argazkian: Ainhoa Retegi (Hiritik at! kooperatibako kidea), Iker Salaberria (zinegotzia), Aitzol Saizar (zinegotzia) eta Izaskun Narbaiza (Hiritik at! kooperatibako kidea).

Parte hartze prozesua herrian

Lehen pausoa aurre lanketa egitea izan da, azaroan hasi zena. Espazioak ezagutu eta behaketak egin dira espazio bakoitzaren erabilera zein den ikusteko eta dokumentazioa jaso da. Aitzol Saizar eta Iker Salaberria zinegotziekin herriko parkeak ikusi eta behatu zituzten. Bilerak ere egiten ari dira eragile ezberdinekin.

Iristear dagoen bigarren fasean diagnostikoaren txanda helduko da. Retegik azaldu duenaren arabera, "hemen ahotsa emango diegu haurrei. Diagnostikoaren helburua izango da parkeen erabilera ezagutzea, eta orohar, haurrek zein behar dituzten. Horretarako haurrekin lanketa egingo da ikastetxeen eta ludotekaren bidez". Ahalik eta haur gehienengana iristeko helburua dugu. Prozesu hau urtarrila amaieran hastea aurreikusten da.

Zaintza komunitatearen ahotsa ere jaso nahi da, eta online galdetegi bat betetzeko aukera zabalduko da horri begira, "horien ekarpena eta iritzia jasotzeko". Diagnostikaren fasea itxiko da orduan.

Behin informazio hori guztia jasota, guztien artean pentsatuko da espazio bakoitzari zein izaera eman nahi zaion, "beti ere herri hezitzaileen ikuspegitik" esan du Retegik. Horretarako ibilbide sortzaileak antolatuko dira herrian barrena haurrekin, proposamenak osatzeko.

Bulego lana helduko da ondoren, txostena osatzeko: "Horrek ekintza plana emango digu. Udaberrian amaitzea aurreikusi dugu, martxoa-apirila arte arituko gara lanean" amaitu du Retegik.

Lezoko Udalak gonbidapena zabaltzen du prozesu honetan parte hartu nahi duen orok bat egin dezan prozesuarekin. Proiektua agintaldiko ekintza izango da. Azterlana egin ondoren marraztuko da aurrera begirako bide-orria, eta bertan zehaztuko dira hurrengo urratsak zein horiek gauzatzeko egin beharreko inbertsioak.

PARKE- 7 SAREA

Proceso participativo en Lezo

El primer paso está siendo realización de un análisis previo. Se están conociendo los espacios de Lezo. También se está recogiendo toda la documentación. A su vez, se están organizando reuniones con los diferentes trabajadores municipales, concejales y agentes implicados en el proceso participativo.

En la segunda fase, que está muy próxima, llegará el turno del diagnóstico. Según ha explicado Retegi, “aquí daremos voz a los niños y niñas. El objetivo del diagnóstico será conocer el uso de los parques y las necesidades de los niños y niñas en general. Para ello se trabajará con los niños y niñas a través del colegio y la ludoteca”.

También se quiere contar con la voz de los y las cuidadores, para ello, se podrá rellenar un cuestionario online para “recoger su aportación y opinión”. Ahí concluirá la fase de diagnóstico.

Una vez recogida toda esta información, Retegi ha señalado que, entre todos y todas, se pensará qué forma y uso se le quiere dar a cada espacio. Para ello se organizarán itinerarios creativos por el pueblo con niños y niñas para completar las propuestas.

Después llegará el trabajo de oficina para completar el informe: “Eso nos dará un plan de acción. Tenemos previsto terminar este proceso en primavera, trabajaremos hasta marzo-abril” concluye Retegi.

El Ayuntamiento de Lezo invita a todo aquel que quiera participar en este proceso a que se sume al mismo. El proyecto es una acción del plan de mandato. Una vez realizado el estudio se dibujará la hoja de ruta de cara al futuro.



El Ayuntamiento de Lezo tiene como objetivo reformar la red de parques. Iker Salaberria afirma que: “cuando elaboramos nuestro programa municipal, desde EH Bildu planteamos que había que tratar el tema de los parques de Lezo y para ello organizamos algunas actividades. Ahora que estamos en el gobierno, estamos respondiendo a ese compromiso analizando la situación de los parques”.

“Para nosotros es importante que Lezo sea un lugar cómodo y seguro para los niños, niñas y adolescentes, que ofrezca espacios adecuados para desarrollar su vida, y en ese sentido, los espacios de ocio y juego tienen una importancia especial”.

El proyecto, además de analizar el estado de los parques existentes en la actualidad en Lezo, incluye el estudio de otros espacios naturales que “pueden ser áreas de ocio de interés”, ha añadido Salaberria.

De esta manera, el Ayuntamiento ha comenzado a colaborar con la cooperativa Hiriatik At! “siendo expertos en urbanismo y ordenación de espacios, ha sido muy interesantes las propuestas que hemos recibido” ha añadido el concejal.

Ainhoa Retegi de la cooperativa Hiritik at! ha puesto sobre la mesa la necesidad de generar este tipo de pueblos: “Si construimos un pueblo apto para un niño o una niña, en gran parte estamos generando un pueblo apto para todos y todas, puesto que estaremos creando un pueblo agradable y útil”.



Gestión desde la ciudadanía

A la hora de definir las políticas públicas a desarrollar desde el Ayuntamiento es imprescindible atender a los problemas, necesidades y aspiraciones de la ciudadanía. El Ayuntamiento de Lezo, recién puesta en marcha la legislación, ha llevado a cabo una amplia encuesta para pedir la opinión de la ciudadanía.

Entre las respuestas recibidas, la falta de aparcamiento ha sido la preocupación que cobra más peso. Junto a ello, se ha constatado que la satisfacción de los vecinos y vecinas de los barrios más alejados (Altamira, Gaintxurizketa, caseríos...) es más baja, destacando los problemas de mantenimiento y limpieza. La dificultad de acceso a la vivienda es el principal problema entre la juventud.

En cuanto a los retos de futuro, se ha dado especial importancia a la mejora del bienestar emocional de los vecinos y vecinas de Lezo y a la rehabilitación de los entornos naturales de Lezo. A continuación, se sitúa el aumento del uso del euskera.

Estos son los ingredientes con los que contamos en estos cuatro años para hacer el pueblo más habitable y agradable para los y las lezoarras. Algunas de ellas ya las habíamos previsto en el programa popular y nos han ayudado a situar también en la dirección correcta el plan de legislación que vamos a presentar a corto plazo. Por lo tanto, el compromiso del Ayuntamiento será responder de la manera más adecuada a estos problemas, necesidades y deseos, para que cuando se repita el cuestionario en 2027 podamos obtener mejores resultados.

Herritarrengandik abiatutako udalgintza

Udaletik garatu beharreko politika publikoak definitzeko garaian, ezinbestekoa da herritarren arazoak, beharrak eta nahiak aintzat hartzea. Hori edonork ontzat emango duen arren, herritarrei ez zaie askotan galdetzen horien inguruan. Lezoko Udalak, legegintzaldia martxan jarri berritan, herritarren iritzia jasotzeko inkesta zabala burutu du. Inkesta hori ezinbesteko oinarria izango da ondorengo urteotako politikak eta erabakiak zehazteko.

Inkestaren emaitzak adierazgarriak izan zitezten 360 lezoarri egin zaio galdeketa. Jasotako erantzunen artean, aparkaleku falta izan da herriko arazoan zein arazo pertsonalen artean pisu nabarmenena hartu duen kezka. Horrekin batera, argi ikusi da, herri kaxkotik aparteko auzoetako (Altamira, Gaintxurizketa, baserriak...) herritarren asebetetzea baxuagoa dela, eta mantenu zein garbiketa arazoak nabarmendu dituzte. Gazteen artean, berriz, etxebizitza eskuratzeko zailtasuna jo dute arazo nagusizat.

Etorkizuneko erronkei dagokienez, Lezoko herritarren ongizate emozionala hobetzeari eta Lezoko ingurune naturalak birgaitzeari garrantzia berezia eman zaio. Ondotik kokatu dira euskararen erabilera handitzea, eta lezoarren elkar-ezagutza zein herri bizitzarako atxikimendua indartzea.

Osagai horiek ditugu, beraz, lau urteotan lezoarrentzat herria bizigarriagoa eta atsegina egiteko. Horietako batzuk aurreikusi genituen herri-programan, eta epe motzean aurkeztuko dugun legegintzaldi plana ere norabide egokian kokatzen lagundu digute. Hortaz, udalaren konpromisoa izango da, arazo, behar eta nahi horiei ahalik eta egokien erantzutea, 2027an galdeketa errepikatzen denean emaitza hobek eskuratu ditzagun.



< Inkesta bistaratu hemen

< Consulta la encuesta aquí



ALDERDI POLITIKOAK



Lezo UEMAn sartu berri da. Berri pozgarria da, eta ilusioz hartu dugu. Ilusioz eta arduraz, ohartzen baikara UEMako herrien zerrendan herri erdaldundunenetakoa dela gurea. Aldi berean, ezagutu berri ditugun euskararen kale erabileraren datuek kezkarako arrazoiak eman dizkigute. Azken hogeita bost urteetako datu baxuenetakoa jaso dugu, euskararen kale erabilera %30eko langaren azpitik (%29,1) kokatuz.

Argi dago, bizi ditugun garai hiperkonektatuek, eta gizarte joera orokorrek euskararen normalizazioaren aurkako korrantea dakarkigutela. Euskaldunon euskaraz bizitzeko eskubidearen aurkako oldarri betean bizi gara, gainera. Garai batean ez bezala, gaur egungo euskaradun gehienak hobe moldatzen dira erdaraz euskaraz baino.

Beraz, Udalaren aldetik ezinbestekoa da horretan esku-hartzea. Horretarako, euskararen plan-estrategikoa martxan jarriko dugu datorren urtean, eta UEMak eskaini dezakeen babesa, ezagutza eta laguntza guztia ongi etorria izango da.

Lezo acaba de incorporarse a la mancomunidad de municipios euskaldunes (UEMA). Es una buena noticia y la hemos recibido con ilusión. Con ilusión y responsabilidad, porque somos conscientes de que el nuestro es uno de los pueblos más castellanizados de los pueblos de UEMA. Al mismo tiempo, los datos del uso del euskera en la calle que acabamos de conocer nos han dado motivos de preocupación. Han sido unos de los datos más bajos de los últimos veinticinco años, situando el uso del euskera por debajo del 30% (29,1%).

Estamos viviendo, además, una agresión tras otra contra el derecho a vivir en euskera.

Por tanto, es imprescindible la intervención Municipal. Para ello, el próximo año pondremos en marcha el plan estratégico de euskera, y estamos convencidos de que todo el apoyo, conocimiento y la experiencia que pueda ofrecer UEMA nos será de gran ayuda.



Lezoko Udaleko EAJ-PNV udal taldea kezkatuta agertu da EH Bildu erakusten ari den martxa eta kudeaketa faltagatik. Gobernu berriak ez baitu hurrengo lau urteetarako bide argirik erakusten. Kezka sortzen da Gobernu Taldeak udalerriari buruz duen ikuspegirantz aurrera egiteko estrategikotzat jotzen dituen ardatz handien faltagatik. Ezin dugu onartu Lezo geldialdi eta atzerapen egoera batera itzultzea.

EAJ-PNV Lezok Udal Gobernuari eskatu dio proiektuak abian jartzeko prozesua bizkortzeko, dagoeneko behar baino gehiago atzeratzen ari direlako. Horrela, eredu eta proiektu propioaren gabezia kezagarria ikusita, lurralde aurreratu, aurrerakoi eta orekatua eraikitzeko lankidetzaren beharra azpimarratzen du. EAJ-PNVren helburu bakarra lezotarrak herri aurreratu eta sendo batean bizi ahal izateko proiektuak garatzea da.

El grupo municipal de EAJ-PNV en el Ayuntamiento de Lezo ha expresado su preocupación por la falta de marcha y gestión que está mostrando EH Bildu. Ya que el nuevo gobierno no muestra una ruta clara para los siguientes cuatro años. La preocupación se genera debido a la falta de grandes ejes que el Equipo de Gobierno considere estratégicos para avanzar hacia su visión del municipio. No podemos permitir que Lezo vuelva a una situación de parón y retroceso.


EAJ-PNV Lezo, insta al Gobierno Municipal a que acelere el proceso de puesta en marcha de proyectos porque ya se están retrasando más de lo necesario. De esta manera, y ante la inquietante falta de modelo y proyecto propio, subraya la necesidad de colaboración para construir un territorio avanzado, progresista y equilibrado. Nuestro único objetivo desde EAJ-PNV es desarrollar proyectos para que los y las lezotarras puedan vivir en un pueblo avanzado y sólido.

9



El presupuesto municipal representa la dirección política y económica del Equipo de Gobierno; es el mapa que muestra cómo va a ejercer su acción de gobierno. Para el PSE-EE los presupuestos aprobados están muy alejados de las necesidades reales del municipio y de las demandas actuales de las vecinas y vecinos de Lezo. Es un presupuesto que ni fomenta la economía local ni la creación de empleo. Tampoco incrementa la protección social de las y los lezoarras, especialmente, de los más desfavorecidos. Las partidas para la regeneración urbana y mantenimiento de los barrios y polígonos industriales son insuficientes por inexistentes siendo los ámbitos cultural y deportivo otros de los grandes damnificados de este presupuesto. Un presupuesto que ha sido elaborado sin contar con la participación ciudadana y que no aporta ningún proyecto tractor e ilusionante para el municipio, y eso que es el más elevado de la historia fruto de haber incrementado la presión fiscal con la subida de los impuestos y siendo la deuda municipal dejada por el anterior equipo de gobierno de cero. Unos presupuestos en los que se ve que una cosa es predicar en época electoral y otra cosa dar trigo cuando se gobierna. Ante esto el PSE-EE ha presentado una enmienda a la totalidad y 27 enmiendas parciales que recogen entre otras actuaciones en el ámbito de la calle Auñamendi, en el barrio de San Pedro-Pysbe y de Altamira, y especialmente la rehabilitación de las instalaciones del polideportivo municipal. La mejora de los servicios sociales, culturales y del comercio local han sido otras de las aportaciones del PSE-EE.

Patri Urkizu Lezon jaio zen 1946an. Mundu osoan ibilitako irakasle, ikerlari eta idazlea da. Abenduan, bere liburu berria aurkeztu zuen Lezoko Udalbatza Aretoan, udal ordezkari, lagun eta herritarren aurrean.



Patri Urkizuk bere liburu berria aurkeztu du Lezon

“Eskribu galduen bila” izena duen bere lan berrian, autobiografia eta kultur kritikak idatzi ditu ia 600 orritan zehar.

Lezoko historia urratsez urrats azaltzen du liburuan, hala nola, pertsonaiak, herrigintza eta euskararen garrantzia. Orrialde horietan, hizkuntzaren eta literaturaren ikuspegitik benetako «altxortzat» har daitezkeen idazkien bilaketa zehatz-mehatz deskribatzen du.

Oso eskertua azaldu zen Patri, bere liburua bere herrian aurkezteko aukeragatik. Lezon euskara sustatzen saiatu da beti, esaterako, Lezoko Udalean plenoak euskaraz bideratu zituen lehena izan zen, baita euskara itzultzailea kontratatu zuen lehenengo udala ere.

Aurkezpenean Arruti alkateak adierazi zuen “plazerra” dela liburua argitaratzea. Patri Urkizu frankismoaren ondorengo lehen alkate demokratikoa (1979-1983) izan zela gogorazi zuen Arrutik. “Patrik, bere alkate lanetan, garbi zuen bera ez zela agintaria, bera herritarren ordezkaria zela. Bere gertutasuna eta apaltasuna nabarmenduko nituzke. Argi zuen elkarlana eta akordioak bilatu beharra funtsezkoak zirela. Patrik egindako lana guretzako isplu da”.

Aurkezpenean zehar, herriko argazkiak eta bitxikeriak aipatu zituen idazleak eta bertaratuen txalo zaparrada eta omenalditxoak jaso zuen. Guztiek batera Lezoko ereserkia abesten amaitu zen aurkezpenean.

Lezoko Udalak Urkizuri eskainitako webgunea sortu du. Bertan denetik aurki daiteke: idazlearen lanak, kantu liburuxkak, poemak... Ez hori bakarrik, Patri Urkizuk komunikabideei lehenengo eta herriari ondoren egindako aurkezpenak udaleko webgunean eta sareetan ikus daitezke osorik.



Argazkian Mikel Arruti, Patri Urkizu, Xanti Val (Kultura teknikaria) eta Eneritz Arruti (alkateordea)

Patri Urkizu presenta su nuevo libro

El lezoarra Patri Urkizu tuvo el placer de presentar su nuevo trabajo en el Salón de Plenos del Ayuntamiento de Pasaia rodeado de representantes municipales, amigos y vecinos y vecinas del pueblo.

Las casi 600 páginas son una autobiografía en la que tienen cabida las críticas culturales.

Fue una presentación en la que Patri recibió un homenaje por todo el trabajo que ha hecho por el euskera y por Lezo y en la que no faltó la música, los bertxos e imágenes muy representativas de la historia del pueblo.



BERRIAK

Mikel Esnaola, txapeldun Mikel Esnaola, campeón

Mikel Esnaola dantzari lezoarrak irabazi zuen Hondarribian ospatu zen gipuzkoar erako Euskal Herriko Aurreku Txapelketa.

Hori dela eta, udal ordezkariak, Zubitxo Dantza Taldeko kide eta lagunekin batera, omenaldi goxoa egin zioten Udal Areto nagusian.

Omenaldian, Lezoko harmarria oparitu zion alkateak Mikel Esnaolari. Ondoren, bere dantza taldeko kideek txapela jarri eta aurreku dantzatu zuten Udal Areto Nagusian famili argazkia atera aurretik. Zorionak eta eskerrik asko, Mikel!

El dantzari lezoarra Mikel Esnaola se impuso en el Campeonato de Euskal Herria de Aurreku al estilo gipuzkoano celebrado en Hondarribia.

Durante el homenaje, el alcalde obsequió a Mikel Esnaola con el escudo de Lezo.

A continuación, los miembros de su grupo de baile le colocaron la txapela al campeón y le bailaron un aurreku en el Salón de Actos antes de hacerse la foto de familia. ¡Felicidades y muchas gracias, Mikel!

11



Energia teknikaria energia planaren zuzendari El técnico de energía será el director del plan de energía

Krisi energetiko betean gaude. Horrenbestez, beharrezkoak dira energia iturri berriak, jasangarriak, eta merkatuaren arauetatik haratago funtzionatuko dutenak. Lezoko Udalak helburu horrekin jardungo du datorren urtean zehar: energia trantsizioari aurre egiteko plana osatuko du, eta horretatik ondorioztatzen diren ekintzak abiatuko ditu, kontratatu berri duen energia teknikariaren zuzendaritzapean. Energia teknikariak energia planaren landu eta horren jarraipena egingo du, bai eta energia komunitatea sortzeko aholkularitza eskaini ere. Halaber, udal eraikinen azterketa egingo du, energia kontsumoa murriztu eta energia berriztagarria sortzeko aukera aztertuz.



Estamos en plena crisis energética. Por tanto, son necesarias nuevas fuentes de energía, sostenibles y que funcionen más allá de las reglas del mercado. El Ayuntamiento de Lezo trabajará a lo largo del próximo año con este objetivo: completará el plan de lucha contra la transición energética y emprenderá las acciones que de ello se deriven, bajo la dirección del técnico de energía que acaba de contratar. El técnico de energía elaborará y realizará el seguimiento del plan energético y asesorará en la creación de una comunidad energética. Asimismo, realizará un estudio de los edificios municipales, analizando la posibilidad de reducir el consumo energético y generar energía renovable.

Lezoko ostalaritzan indarkeria matxistarik ez No a la violencia machista en la hostelería de Lezo

Feminismo departamentuak herriko ostalariekin tailerra antolatu zuen Udalbatza aretoan.

Ostalariei egindako saioan herriko tabernetako eta kafetegietako errealitatea zein den ikusaraztea izan zen lehen pausoa eta ostalarien artean euren esperientzia partekatzea.

Gainera, indarkeria ezberdinak ezagutzeko, identifikatzeko eta detektatzeko lanketa egin zen. Azkenik horrelako kasuak antzeman eta horren aurrean erantzuteko zenbat tresna eskura jarri zitzaizkien bertaratuei.

Bertaratutako ostalariei eskerrak eman nahi dizkie Udalak eta era honetako beste saio edo tailer gehiago prestatzen jarraituko du.

El departamento de Feminismo organizó un taller con hosteleros y hosteleras de Lezo en el Salón de Plenos.

Durante la sesión, se intentó dar a conocer cuál es la realidad de los bares y cafeterías de la localidad y escuchar y compartir la experiencia y relatos de los hosteleros y hosteleras. Además, se trabajó para conocer, identificar y detectar las diferentes violencias existentes. Finalmente, se puso a disposición de los asistentes diferentes herramientas para detectar y responder ante este tipo de casos.

El Ayuntamiento quiere agradecer a todos los asistentes por acudir al taller y seguirá preparando más sesiones o talleres de este tipo.





URTARRILAK

12

17:15

TEILATUPEAN



OTSAILAK

2

17:15

BO JAUNA




OTSAILAK

16

17:15

ANDEREÑO



APIRILAK

12

17:15

PIN PANG




APIRILAK

26

17:15

ALI BABA ETA 40 LAPURRAK



EKAINAK

15

17:15

ORRATX TXIKI



URTARRILAK

27

17:00

SUPER HEROIEN FAMILIA




OTSAILAK

17

17:00

OINK-OINK



MARTXOAK

16

17:00

YUKU ETA HIMALAIAKO LOREA



APIRILAK

20

17:00

BOO KWAI ETA MUSEOAREN LAPURRETA




URTARRILAK

27

19:00

BIDASOA 2018-2023



MARTXOAK

16

19:00

AZTARNAK



EKAINAK

20

19:00

PEREGRINO MODERNOEN OPORRAK



URTARRILAK

14

19:30

LA LLUVIA AMARILLA



URTARRILAK

28

19:30

HASTA QUE LA MUERTE NOS SEPARE



OTSAILAK

4

19:30

ROSAS TO DANCE



OTSAILAK

21

19:30

OIHANA CORTAZAR HITZALDIA



OTSAILAK

25

19:30

SHINE



MARTXOAK

3

19:30

APOTHEÓISIS BUFFO



APIRILAK

21

19:30

ALMAZANEAN



MAIATZAK

4
5

19:30

UBU ERREGE

SARRERA

Sarrerak edo gonbidapenak aldeztu aurretik hartzea gomen- datzen da (lezo.eus edo app) Se recomienda adquirir las entradas o invitaciones con antelación (lezo.eus o lezo app)

DESCARGATU LEZOKO APP-A DESCÁRGATE LA APP DE LEZO